

# IHAUTERIAK

© FRANTXOA COUSTEAU

## Agerraldi 1 : Urte bitxia.

*\*Musika triste bat. Haurrak sartzen dira, ezker/eskuin ibiltzen dira, taulada ongi betez.*

**Kond. 1** : Denbora heietan, giro txarra nagusitu zen Donibane Garaziko eskualdean.

**Kond. 2** : Jendeak bazabiltzan, burua apal, gogoeta ilunetan galduak balire bezala.

**Kond. 3** : Uda osoan euria egin zuen, eta hotz. Iguzkia beti gorderik zagoen eta udatiarrak kexu ziren.

**Kond. 4** : Laborariak ere zinkurinaz ari ziren. Kabalak barnean, esne guti, eta belarrak kanpoan, bustitzen ari.

**Kond. 5** : Larriago dena, hurrek ere ez zuten gehiago jostatzeko gutiziarik.

**Kond. 6** : Nun ziren ba usaiako irri karkaila, oihu eta zalapartak ?

**Kond. 7** : Berri txarrak baizik ez ziren entzuten...

**DENAK** : (*Gelditzen dira, eta begirada "harritu" bat eskaintzen diete ikuslierreri.*)

**Pilu** : (*Sartuz, hatsantua, J.*) : Donibaneko goxotegietan xokolatina guziak desagertu dira !

**DENAK** : (*Aho batez*) : XOKOLATINAK DESAGERTU ?!...

**Pilu** : Bai eta ere bixkotxa eta oñoñak !... Denak jan dituzte, ikimiliklik !

**DENAK** : (*Aho batez*) : IKIMILIKLIK ?!... ETA NORK ?...

**Pilu** : (*Ez jakinaren keinu eginez*) : Pffrrr !... Ez dakigu !

**Menane** : (*Sartuz, hatsantua, C.*) : Ene aitaxiren otoa ebatsi dute !

**DENAK** : (*Aho batez*) : EBATSI ?!...

**Pilu** : (*Menane-ri*) : Beraz, oto ederra zuen zure aitaxik ?

**Menane** : Ez !... Katrela zahar bat !

**DENAK** : (*Aho batez*) : KATRELA, AH BAI, BITXI DA !...

**Menane** : Gaixo aitaxi, nola eginen du orai merkaturat joaiteko ?

**Pilu** : (*Menane-ri*) : Eta amatxik, zer dio ?

**Menane** : Amatxik ?... Be, bere gizonaren zinkurinak jasan beharko, beti bezala !...

**Pilu** : ("*Télécommande*" bat hartu eta gora-gora altxatuz) : Flash-back lehena !

### **Agerraldi 2 : aitatxi eta amatxi.**

*\*Bi hurrek alki bedera ekartzen dizkiete taulada aitzinera. Aitatxi eta amatxi jartzen dira.*

**Menane** : (*Zinema-ko zartagailua erabiliz*) : Ene aitatxi eta amatxiren arteko kalapitak : Moteur !

**Aitatxi** : Kotxinos !... Kotxinos !... Ene gaixo Katrela !

**Amatxi** : Oh, bakimazu ixtan bat, Joanes : atxemanen dizute ba zure otoa.

**Aitatxi** : Atxemanen ?... Eta nork ?... Jendarmek beharba ?... Otoa ebatsi dautate, ebatsi ! Segur naiz oraidanik urrun dela ene gaixo Katrela : beharba Alemanian, edo Errusian !

**Amatxi** : Alo alo, Joanes, ez zazula zozokeriarik konda : norbaitek hartu dautzu, hola, irri egiteko.

**Aitatxi** : Irri egiteko ?... Bainan burutik baduzu ala, Kattalin ?... (*Aparte*) : Irri egiteko !...

**Amatxi** : Ez duzu astean behin baizik erabiltzen : Donibane Garaziko merkatura joaiteko.

**Aitatxi** : Preseski !... Eta beti juango dut !

**Amatxi** : Bixtan da... lagunekin... Garatenean... xopinak edateko...

**Aitatxi** : Garateneko pilota partida bat ez dut behin ere huts egin, eta naiz orai hasiko : Garateneko partidak segituko ditut beti !... Bizi naizeno !

**Menane** : (*Zinema-ko zartagailua erabiliz*) : Coupez !...

**Amatxi** : Oh zu, zure Garatenea eta zure pilotarekin, nardatzen nauzu azkenean !

**Menane** : (*Bien aitzinean eman ez, eta besoak idekiz*) : "Coupez", erran dut, COU-PEZ !!...

**Menane** : Aitatxi eta amatxi, kalmatzen gira otoi...

*\*Musika bitxi bat entzun ginezake, holako "ezusteko" edo "suspense" zerbait adieraz lezakena.*

*\*Aitatxi eta amatxi xutitzen dira eta beste hurren erdian berriz emaiten.*

*\*Bi hurrek alkiak baztertzen dituzte.*

*\*Pilu eta Menane ateratzen dira, bat **J.** bertzea **C.***

### **Agerraldi 3 : gertakari bitxiak.**

*\*Musika berdina segitzen du.*

*\*Hurrek elgar begiratzen dute, batek bestea akusatzen balu bezala : giro hotz eta beldurgarria.*

*\*Senditzen da hurrek ateratu nahi dutela, emeki-emeki, kasu eginez, **J.** eta **C.** aldeetarat.*

**Menane** : (*Taulada zolatik aitzinatu eta, larderia haundiz*) : Stop !... (*Musika gelditzen da.*)

**DENAK** : (*Gelditzen dira, erhi ttipiaren mugitzeko ere beldur direla.*)

**Pilu** : (*Taulada zolatik aitzinatu eta, larderiaz betea*) : Zergatik ihes egin nahi duzue ?... Ez zirezte ontsa gurekin ?

**Menane** : Edo gertatutako ekintza xikin batzuen entzutea ez duzue gustukoa ?...

**Pilu** : Konzientzia ez duzue trankil, ala ?!...

**Menane** : Hara gertatutakoak : Pekoitxeko gatuari izigarriko ostikoa eman diote !... Sabelean !

**DENAK** : (*Beren inoxenta egiten dute.*)

**Pilu** : Galerietako eskalerrean norbaitek banana axal bat botatu du !...

**Menane** : ...Mitxelengo amatxi lerratu da, eta "col du fémur" hautsi du !...

**DENAK** : (*Beren inoxenta egiten dute.*)

**Pilu** : "Rue d'Espagne"-ko denda batean denak ebatsi dituzte, eta bereziki jostagailuak...

**DENAK** : (*Beren inoxenta egiten dute.*)

**Menane** : Intermarché-ko kinders guziak desagertu dira, bai eta Haribo, Mars eta Chamallows !

**DENAK** : (*Beren inoxenta egiten dute.*)

**Pilu** : Garnier Velox-eko goxoki hoberenak airatu dira : pastiza, marrubi-tarta, matahami eta krepa, ahantzi gabe "les éclairs au chocolat" !...

**Menane** : Haur tropa bat ikusi omen da, masta-masta, zintzurrean eman ahala, xokolatez emokaturik, kokots, matel eta kopetak !

**DENAK** : (*Beren inoxenta egiten dute.*)

**Pilu** : Hori baino gehiago : kantinako jaurta guziak desagertu dira !... Entzun duzue ?... Kan-ti-na-ko jaurtak !...

**Menane** : (*Haureri*) : Orduan ?... Orduan ?... ORDUAN ???...

**DENAK** : (*Beren inoxenta egiten dute.*)

**Pilu** : ("*Télécommande*" hartu eta altxatuz) : Nahi duzue aitameri konda diezaiegun zer pasatzen den eskolako jan gelan ?

**Zipotz** : Ez... ez du merexi... gauza horiek gure artean egon behar dute...

**Pilu** : A bai, gure artean ?!... Ni ez naiz batere ados...

**Kabana** : Edozoin gisaz, nik jaurtak ez ditut maite...

**Kako** : Ni, egun hortan, ez nintzen eskolan... eri nintzen...

**Menane** : (*Zinema-ko zartagailua erabiliz*) : Kantinako jaurtak : Moteur !

**Koakim** : Ez ez ez, andere : ez da interesanta !... Futitzen dira gure jaurtetaz !

**Pilu** : A futitzen ?!... Beraz burrasoeri idatziko diet... Orduan ikusiko dugu !

**Manina** : Ez, gure artean konponduko gira !

**Haize** : Segur, segur, arrañatuko gira : zaude trankil !... (*lxil une bat.*)

**Pilu** : Ontsa, pasa aldi huntako, bainan bestaldian kasu !

**DENAK** : (*Aho batez*) : MILESKER PILU ETA MENANE !

**Menane** : (*Eskuak torratuz*) : Orain, azken gertakaria !

**DENAK** : (*Beren inoxenta egiten dute.*)

**Pilu** : Errekaldeko ardien gertakaria aipatu nahi duzu, Menane ?

**Menane** : Hura ta bera Pilu !... (*Haurreri*) : badakizue zer gertatu den Errekaldeko ardiari ?

**DENAK** : (*Begirada "harritu" bat eskaintzen diete ikuslierreri*) : PPPFFRRRR !!...

**Pilu** : Bixtan dena !... (*Ikuslierreri*) : zer haur inoxentak dituzuen bestenaz !... ("*Télécommande*" bat hartu eta gora-gora altxatuz) : Flash-back bigarrena !

#### **Agerraldi 4 : Errekaldeko ardiek ihes egin.**

*\*Haurrak taulada zolako J. gordalekura joan eta lau pataka emaiten dira.*

*\*Bi hurrek, makila bedera eskuan, "xehela" eginen dute, taulada aitzinean.*

**Menane** : (*Zinema-ko zartagailua erabiliz*) : Errekaldeko ardiak : Moteur !...

**Artzaina** : (*Sartuz J. zolatik*) : ño !... ño !... ño !... ño !... ño !... ño !...

**Ttobi** : (*Sartuz J. zolatik*) : Uaf !... Uaf !... Uaf !... Uaf !... Uaf !...

**ARDIAK** : (*Sartuz J. zolatik lau pataka*) : MEEE !... MEEE !... MEEE !... MEEE !...

**Artzaina** : (*Xehela hesten du*) : Ale, hor egonen zirezte lau orenak arte !...

**Ttobi** : Uaf !... Uaf !... Uaf !... Uaf !... Uaf !...

**Artzaina** : Ale Ttobi, goazen etxerat. (*Ateratzen dira, J.*)

**Ttobi** : (*Bere nagusia segituz*) : Uaf !... Uaf !... Uaf !... Uaf !... Uaf !...

**ARDIAK** : (*Alhan*) : MEEE !... MEEE !... MEEE !... MEEE !...

**Pilu** : Artzainak xehela ongi hetsi du.

**Menane** : Ez ahal direa pollitak Errekaldeko ardi eta bildotsak ?...

*\*Bi onddoketari sartzen dira, bata J.-tik, bestea C.-tik. Iratzeak bortizki zafratzen dituzte makilekin.*

**Pilu** : Kasu, onddoketariak... Zer astakeria eginen dute ba bi horiek ?

**Domingo** : (*Makila kokots pean eskuekin emanik*) : Zer deabru, ez dugu kasko beltz bakar bat ere ikusiko aurten !

**Pele** : (*Berdin*) : Ba, urte txarra, gaizo Domingo !... Beti euria !... Beti euria !... eta hotza, hotza !

**Domingo** : (*Xehela idekitzen du*) : Ale, goazen hemendik. (*Ateratzekotan, J. aitzinetik.*)

**Pele** : (*C. alderditik ateratzekotan*) : Xehela ez dugu hesten ?

**Domingo** : Ba, berdin du... bego hola hola !... Addio Pele !... (*Ateratzen da, J. aitzinetik.*)

**Pele** : Addio Domingo !... (*Ateratzen da, C. aitzinetik.*)

*\*Bi hurrek, makilak beti eskuan : xehela idekia dela.*

**Menane** : Eta hara !... (*Ikuslierreri*) : Zuen ustez, zer egingen dute ardi guziek ?... (*Jendeen erantzuna*) : Bixtan dena, denek ihes egingen dute.

**ARDIAK** : (*Taulada aitzinera eginez*) : MEEE !... MEEE !... MEEE !... MEEE !...  
(*Ateratzen dira, J. eta C. aitzinetik.*)

**Bi haurrak** : (*Xehela egiten zutenak*) : "Bon be, goazen..." (*Dio batek*) : "Arrazoin duzu, hemen ez dugu deus egitekorik..." (*Dio bertzeak*) : "Nagusia dela kontent izanen..." (*Dio lehenak*) : "Segur, plomuak zapartatuko ditu..." (*Dio bertzeak... Ateratzen dira.*)

**Pilu** : (*Ikuslierreri*) : Hum hum !... (*J. gordalekura begiratu eta*) : Nagusia...

**Ttobi** : (*Kanpotik entzuten da*) : Uaf !... Uaf !... Uaf !... Uaf !... Uaf !...

**Pilu** : (*Ikuslierreri*) : Eta xakurra !...

**Ttobi** : (*Lehenik sartzen da*) : Uaf !... Uaf !... Uaf !... Uaf !... Uaf !...

**Artzaina** : (*Ardiak joan direla ikusi eta, eskuak zerura altxatuz*) : AH !... AH !... AH !...

**Ttobi** : (*Xehela desagertu dela erakusten dio*) : Uaf !... Uaf !... Uaf !... Uaf !... Uaf !...

**Artzaina** : (*Xehela desagertu dela ikusi eta, eskuak zerura altxatuz*) : AAHH !... AAHH !... AAHH !  
Nork ideki du xehela ?!... Nork ideki du xehela ?!... Segur naiz Donibane Garaziko haur tzar horien lana dela !... Atxemaiten badituz, urkatzen dituz !... AAAAHHHH !...  
(*Ateratzen da bere xakurrekin, "uaf, uaf, uaf !..." entzuten dela.*)

**Menane** : Eta orai, nun dira ardiak ?... Zoazi jakitera !...

**Pilu** : Segur naiz otsoek janen dituztela, edo hartzek !...

**Menane** : Ba pentsa, ez da gehiago otsorik, ez hartzik !...

#### **Agerraldi 5 : Nun dira ardiak ?**

*\*Alimaleko garrasia, zonoan. Otsoa aitzinatzen da.*

**Otsoa** : Nun dira ardiak ?... Nun dira bildotsak ?...

**Pilu eta Menane** : (*Xifrituak*) : Be be be be...

**Otsoa** : Errazue egia, bestenaz klikatzen zaituztet !...

**Pilu eta Menane** : No no no nor zi zi zi ra z z zu ?...

**Otsoa** : (*Papoa hantuz*) : Otsoa !... Jaten ditut xerri lodiak eta axuri freskoak !

*\*Anartean "ardiak" taulada gibeletik sartu eta Otsoaren gibelera hurbildu dira.*

**ARDIAK** : (*Izigarri bortizki*) : MEEEEEEHHH !!!!!... MEEEEEEHHH !!!!!...

**Otsoa** : (*Harrapatua*) : AAAAHHHHH !!!!!... (*Ihes egiten du lasterka.*)

*\*"Ardiak" gibelatzen dira eta akuriko emaiten dira.*

*\*Alimaleko garrasia, zonoan. Pierre aitzinatzen da, harma eskuan.*

**Pierre** : Nun dira ardiak ?... Nun dira bildotsak ?...

**Pilu eta Menane** : (*Xifrituak*) : Be be be be...

**Pierre** : Errazue egia, bestenaz klikatzen zaituztet !...

**Pilu eta Menane** : No no no nor zi zi zi ra z z zu ?...

**Pierre** : (*Harma eskuan, harro*) : Pierre !... Jaten ditut axuri freskoak ETA OOTSSOAK !!!!!...

*\*Anartean "ardiak" taulada gibeletik Pierre-ren gibelera hurbildu dira.*

**ARDIAK** : (*Izigarri bortizki*) : MEEEEEEHHH !!!!!... MEEEEEEHHH !!!!!...

**Pierre** : (*Harrapatua*) : AAAAHHHHH !!!!!... (*Ihes egiten du lasterka.*)

**ARDIAK** : (*Itxura beldurgarrienean hola egoiten dira, mugitu gabe, "itxura geldi" bat eginez.*)

**Pilu** : Holakoak dira Garazi aldeko buru gorri ala beltzak : ñapurrak !

**Menane** : Badakizue nun atxeman ditugun ?... Irulegi aldeko mahasti hoberenetan !...

**Pilu** : Mahatsa jaten zuten masta masta !

*\* "Ardiak" itzultzen dira gibel aldera. Bi haurrek atxik lezaketen haga batean mahatsak zinzilik margotuak dira. "Ardiek" jaten dituzte masta masta.*

**Menane** : Behi eroa ezagutzen ginuen : hara orai ardi eroak !...

**Pilu** : Mahatsa jan zuten leher eta zapart egin arte !

**Menane** : Zozotu ziren, mozkortu ziren eta alde guzietara ihes egin zuten !

**ARDIAK** : ("**MEE !!... MEE !!...**" oihu eginez itzulikatzen dira alde guzietara.)

**Pilu** : Errekara erori ziren eta urak eraman zituen !

**ARDIAK** : (*"MEE !!... MEE !!..." oihu eginez "ZORTZI" handi batzu egiten dituzte, errekaren arrabots indartsua ZONOAN entzuten delarik.*)

**Menane** : Errekak eraman ditu Donibane Garazi arte.

**Pilu** : Udatiarrak zubi gainean dira, errekari so. Bat-batean, arrain bitxiak ikusten dituzte !

**ARDIAK** : (*Denak "UDATIAR" bilakatzen dira, argazki egiteko tresnak eskuan.*)

**Ursula** : (*Erreka erakutsiz, zubitik*) : Oh, chéri, regarde, des moutons !...

**Bob** : (*Ez du sinesten*) : Des moutons ?... Dans l'eau ?... Tu divagues ma chérie...

**Ursula** : Mais enfin, regarde !...

**Bob** : (*Harritua*) : Ah ben ça alors... Tu as raison... (*Argazki bat hartzen du : "KLIK"*)

**DENAK** : (*Argazkiak hartzen dituzte : "KLIK" "KLIK" "KLIK" "KLIK"*)

**Menane** : Eta hori guzia ardien xehela idekia egon delakoan ?!!!...

**DENAK** : (*Berriz "HAUR" bilakatzen dira : ez dakite zer erran.*)

#### **Agerraldi 6 : Donibane kaldan.**

**Sud ouest** : (*Taulada zolatik aitzinatuz, kaseta gora altxatuz*) : Erosi Sud Ouest, erosi erosi !...

**DENAK** : (*Denek kaseta erosi nahi dute.*)

**Le JPB** : (*Taulada zolatik aitzinatuz, kaseta gora altxatuz*) : Erosi le Journal du Pays Basque, erosi, erosi !...

**HERRIA** : (*Taulada zolatik aitzinatuz, kaseta gora altxatuz*) : Erosi Herria, erosi, erosi !...

**DENAK** : (*Kaseta bat eskuetan, denek irakurtzen dute.*)

**Off botza** : (*Zonoan entzunen dena*) : " Donibane Garazi eskualdeko berriak : "Oñoñak ebatsiak izan dira, bai eta krepa, matahami, xokolatina eta jaurtak !"

**DENAK** : (*Kaseta doi bat apalduz, ikuslierreri*) : OOHH !!...

**Off botza** : "Amatxi bat erori da, Katrela bat ebatsi dute, eta Errekaldeko ardien xehela ideki dute !"

**DENAK** : (*Kaseta doi bat apalduz, ikuslierreri*) : OOHH !!...

**Off botza** : "Ardiek Irulegiko mahatsak jan dituzte : aurten ez da arnorik egiten ahalko !"

**DENAK** : (*Kaseta doi bat apalduz, ikuslierreri*) : OOHH !!...

**Off botza** : "Ardiak mozkortu dira eta erre kara erori !"

**DENAK** : (*Kaseta doi bat apalduz, ikuslierreri*) : OOHH !!...

**Off botza** : "Beharrik su hilitaileek salbatu dituzte !... Bainan orai denak eztulka ari dira !" "Jendarmeak etorriko dira inkestaren egiteko !..."

*\*Musika militarra. Bi jendarma aitzinatzen dira, J. eta C.*

**Gendarme Malabar** : (*Bere burua aurkezten du*) : Gendarme Malabar : aitortzen ez duenak eginen du nigar !

**Lieutenant Roubidou** : (*Bere burua aurkezten du*) : Lieutenant Roubidou : hobenduna salha, zanpa, tinka : ez urrikaldu !

**Gendarme Malabar** : (*Haurrerri*) : Orduan ?...

**DENAK** : (*Ixilik.*)

**Lieutenant Roubidou** : Mintzatuko zirezte bai ala ez ?... Nun da hobenduna ?...

*\*Memento hortan, Zanpantzar agertzen da gelaren zolan, ikuslierren gibelean.*

**DENAK** : (*Zanpantzar-eri buruz erhia luzatuz*) : HHHAAAANN !!!!...  
(*Tauladatik lurrera jautzi egin eta joaiten zaizkio xerka, laster eginez.*)

### **Agerraldi 7 : Zanpantzar-en auzia.**

*\*Musika. Zanpantzar aitzinatzen da taulada gainera. Dantzariak balin badira, hobe.*

**ZIRTZILAK** : HHHUUUAAAAA !!!!... HHHUUUAAAAA !!!!... HHHUUUAAAAA !!!!...

*\*Taulada gainera heltzen delarik, musika gelditzen da.*

**Lieutenant Roubidou** : (*Desesperatua*) : Zanpantzar !... EEEZZZ !!!!...

**Epailea** : Jaun-andereak, arratsalde on. Denek badakigu zer iragan den Garazi aldean : Beraz, afera seriosa epaituko dugu.

**Zipotz** : Zanpantzarren jukutriak dira berriz ere !

**Kabana** : Deabru tripa haundia, gure desertak jaten ditu.

**Abokatua** : Barkatu jaun-andereak, ni abokatua naiz : ez duzue norbait hola kondenatzen ahal, jakin gabe.

**Kako** : Bere ekintza itsusien gatik behar du pagatu !

**Koakim** : Zanpantzar, mintza zaitte, zerbait errazu !

**Manina** : Zanpantzar, mututua zira ?

**Haize** : Zanpantzar, buru haundi, tripa lodi, dena zorri kukuso eta zizari !

**ZIRTZILAK** : HHHUUUAAAAA !!!!... HHHUUUAAAAA !!!!... HHHUUUAAAAA !!!!...

**Epailea** : Zirtzilak, otoi, ixilik !

**Abokatua** : Gizon hau, kondenatua ez deno, i-no-xen-ta da !

**ZIRTZILAK** : (*Eskarniatuz*) : HHHUU-UAAAA !!!!...

**Epailea** : Ixo !... Zanpantzar, zuri...

**Zanpantzar** : ...

**Domingo** : (*Ikuslierren gibeletik sartuz, gelaren zolatik, oihuka, zaku haundi bat eskuan*) : Atxeman dut !... Atxeman dut !... Atxeman dut !... (*Taulada gainera hupatzen da.*)

**Epailea** : Zer atxeman duzu ?

**Domingo** : (*Zaku barnetik jaurta bi untzi erakutsiz*) : Hau !...

**DENAK** : (*Begiak handizki idekiz*) : OOOHHH !!!!...

**Epailea** : Zanpantzar, orduan ?...

**Zanpantzar** : ... E bee... kantina ondotik pasaten nintzen eta... jaurtak biziki maite ditut...

**DENAK** : (*Begi gaixtoak eginez*) : UUUUUUUUUUUHHHHHHH !!!!...

**Abokatua** : Ai ai ai... Zanpantzar... ez da batere pollita egin duzuna !...

**Epailea** : Bozkatuko dugu : nork uste du Zanpantzar dela obenduna ?

**DENAK** : (*Eskua altxatuz*) : NIIIIIIK !!!!...

**Epailea** : Nork uste du inoxenta dela ?

**Lieutenant Roubidou** : (*Eskua altxatuz*) : Nik !

**DENAK** : (*Alegia harrituak, sekulako aurpegiak.*)

**Gend. Malabar** : Bainen, mon lieutenant ez zira kontent ?... Hobenduna atxeman dugu...

**Lieutenant Roubidou** : Gaizo Malabar, badu urteak eta urteak irauten duela !... Eta heldu den urtean berdin izanen da : ez duzu oraino konprenitua ?

**Gendarme Malabar** : Bainen, mon lieutenant zer behar da konprenitu ?...

**DENAK** : (*Aho batez*) : ZANPANTZAR HOBENDUNA DELA... C'EST TOUT !!!!...

**Epailea** : Eman iozue ipurditik su !... (*Musika dantza.*) **Bukaera.**

Cette année là, les gens étaient bien tristes : l'été fut pluvieux et froid, et l'hiver interminable. Le carnaval ne fit rien pour arranger les choses.

Non contents des chaparderies habituelles, il paraît que des mauvais garnements ont volé la 4 L d'aitatxi : non mais, où va t-on ?

Urte hura euritsua izan zen, eta hotza : denak triste ziren Donibaneko karriketan. Azkenean ihauteriak etorri ziren eta, ihauterietan, jostatzen gira !...

Bainen norbaitek aitatxi-ren Katrela ebatsi du... Zer mila deabru !

Bien sûr aitatxi n'utilise sa 4 L qu'une seule fois par semaine, le lundi précisément. Mais comment va-t-il faire s'il ne peut plus aller aux parties de pelote du trinquet Garat ?

En tous cas, il est très en colère et les vilains garnements du village n'en mènent pas large !

Aitatxi izigarri kexu zen eta jendeak asalatuak ziren. Batzu segurik, ez ziren batere beren buruaz fida, zeren ihes egiten dute, ihes, lasterka !...

Des chocolaines, des éclairs, des bonbons ont été chapardés par-ci par-là... Bon, passons : c'est carnaval. Plus grave, un individu a ouvert la barrière des brebis... Alors ça, c'est pas joli joli !...

Nork ez du egun batez oñoña edo bixkotxa bat hartu, amaren ixilean... Bainan ardiekin jostatzea eta xehelaren idekitzea, hori ez da abilezia !...

On connaissait la vache folle, et voilà-t-il pas que nos brebis se mettent à dévorer du raisin !... La fermentation aidant, elle perdent complètement la tête avant d'être emportées par le flot tumultueux de la Nive... Ce sont les touristes qui se marrent !...

### **Pertsonaiak.**

Kond 1	Otsoa
Kond 2	Pierre
Pilu	Ursula
Menane	Bob
Atatxi	Sud Ouest
Amatxi	JPB
Zipotz	Herria
Kabana	Malabar
Kako	Roubidou
Koakim	Epailea
Manina	Abokatua
Haize	Zanpantzar
Artzaina	
Ttobi	
Domingo	
Pele	
Haur 1	
Haur 2	


Antzerki testu hau Euskal kultur erakundearen web-atarian zintzilikatua izan da, egilearen baimenarekin, <http://antzerkit.eke.eus> helbidean, Iparraldeko euskarazko antzerki testuak biltzen dituen atal batean.

© Copyright lizentziapean zabaldua da.

Ondorioz, ezin zaio inolako aldaketarik ekarri egilearen baimenik gabe.

Ildo beretik, antzerkia publikoaren aitzinean eman nahi izanez gero, egilearen baimena eskuratu behar da derrigorrez (edota egilearen eskubideak kudeatzen dituen pertsona edo erakundearena).

Harremanetan sar daiteke zuzenenean berarekin edo Euskal kultur erakundearen bidez [antzerkia@eke.eus](mailto:antzerkia@eke.eus) helbidera idatziz.



[antzerkit.eke.eus](http://antzerkit.eke.eus)

Ce texte provient du recueil d'œuvres théâtrales en langue basque mises en ligne avec l'accord de leurs auteurs dans une rubrique du site de l'Institut culturel basque à l'adresse <http://antzerkit.eke.eus>.

Il est diffusé sous une licence © Copyright. De fait, aucune modification ne peut lui être apportée sans autorisation de l'auteur.ice.

De même, cette œuvre ne pourra être donnée en public qu'après avoir obtenu l'accord de l'auteur.ice (ou de la personne ou de l'organisme la représentant). Vous pouvez, à cette fin, le/la contacter directement ou obtenir ses coordonnées par le biais de l'Institut culturel basque en adressant un message à l'adresse [antzerkia@eke.eus](mailto:antzerkia@eke.eus).